

kolaborazioak

Ez da egia Arzalluz eta Garaikoetxea berdinak direnik; eta PNV eta EA gauza bera direnik. Ez dira gauza bera. Arzalluzek modan jarri duen «politikagintza modu» ziniko eta terzermundista hori, ez da EArena... EA koldarra da politikagintzan. PNV, berriz, klerikala. Sinestunak obeditu egin behar du «goitik» esaten zaiona, eta kitto... EAK oraindik euskal proiektua du helburu, ene ustez. PNVk, ez

Han sido 38 años nefastos», esan zuen joan den astean buruzagi jeltkideak.

Eta nik, beste askok bezala, berehala egin nuen kalkulua: 1998, ken 38, edo 1960. Urte hits, negargarri, ezinago ilun horiek, 1960-1998 artea bete-tzen dutenak omen dira. Eta ez zuen gogotan Eusko Jaurlaritzara, ene ustez, edo Recalde eta Buesaren ekarria. Ez dut uste.

Zerk egin ditu 38 urte horiek, beraz, horren lotsagarri eta madarikagarri? Irakurleak pentsa eta asma beza. Euskararen pizkunde berriak ote? Abertzaletasunaren olatu berriak agian? euskal kantaren loraldiak, euskal literaturarenak, ikastolen hazkunde harigarria ote zuen gogoan? Euskara Batuaen arrakasta gertatu ote zaien irentsezin, edo Iparraldeko balaun abertzale gaitzearen etorrera? Burgozko Epaiketarako nardatu ote zuen osoki 1970can? edo-ta, ondoko urteetan, HBren eta LABen sorrera? Hori guzua horren deitoragarri iruditzen ote zaien jaun horri? Españolista guztiak bezalaxe, berak ere urte ezin beltzagotzat dauka 1960koa. Zergatik?

Eta honetxek salatu zituen garbikiarik bai bera, eta bai ordezkatzen duen Alderdia.

Eta gauzak garbiago uzteko, Aznarrek disimulurik batere gabe gu guztiok («guztekin abertzalekoak, jakina») gartzelaratzeko bere asma kalera zuten aste berean; bide batez abertzaletasuna gaitzetsiz.

Hala ere, biharamunean PNVk bere baiezko botoa

38 años nefastos

Jose Luis ALVAREZ ENPARANZA «TXILLARDEGI»
• Idazlea, hizkuntzalaria

eman zion PPri Madril. Gutaz, eta gure herri honetan askapenaren alde beren bizia eskaini dioten abertzale guztiez (1936ko gudariak barne) barre egiten zuelarik.

Baina fartsa ez da horretan amaitu. Oraindik jokabide hiper-españolista horien oihartzuna bazterretan entzun zitekeelarik, Arzalluz esa-saltzailak jirabuelta osoa eman du bapatean, beste mila aldiz bezala; eta prediku abertzalea bota du hor nonbait. «Benetako euskalduna izateko abertzalea izan behar dela», eta abar.

Bagenekien Arzalluzen hitzek eta Arzalluzen jokabide politikoez ez dutela inolako loturarik. «En el plano de las ideas» abertzale, «en el plano de la política real», españolista errejionala. Neo-karlista zehazkiago. Bagenekien.

Ohitu ere egin gaitu. Eskandalu etengabe horrek, jarraitzaileen inoxtokierian ez beste ezertan funtsaturik posible den adar-jotze etengabe horrek, gure herriaren alienazio-mailaren neurri zuzena ematen du, Afrikara garamatza. Eta barka nazatela afrikarrek...

Iseka etengabe horrek prezio ezin garestiagoko ja-danik, eta are garestiagoko izango du ondoko urteetan. Arzalluzek minbiziz kutsatu

du bere alderdia. Minbiziz kutsatu du euskal politika, errotik nazkatu ditu abertzaleak oro, eta urte pila beharko da euskaldun jende zator asko berriro euskal nazio-proiektura erakartzeko.

Eta honetaraz gero ohar bat egin nahi dut, denen gustokoa izango ez bada ere. Ez dela egia Arzalluz eta Garaikoetxea berdinak direnik; eta PNV eta EA gauza bera direnik. Ez dira gauza bera. Arzalluzek modan jarri duen «politikagintza modu» ziniko eta terzer-mundista hori, ez da EArena. Ez naiz ni EAren alde agertu, eta ez aisa agertuko. Baina esan egin behar da egia: bai egiaeren ohoretan, eta bai edozer egitekoan gauzak garbi jarri behar dire-lako.

EA koldarra da politikagintzan. PNV, berriz, klerikala. Sinestunak obeditu egin behar du «goitik» esaten zaiona, eta kitto... EAK oraindik euskal proiektua du helburu, ene ustez. PNVk, ez. PNVk beste Espainia bat bilatzen du; horretan gobernikide eta... molt-sakide oso izateko.

Izquierda Unida PSOEn «kopia conforme» ez den bezalatsu. Euskal aberrigintzatik at biak egonik ere, IUrekin zerbitu egin daiteke helburu taktikoen mailan, eta elkargu-neak bila. PSOErekin ez. Ez dira gauza bera.

23 urte joan dira Franco hil zenez gerotzik. Lehen ez genekien PNV zer zen. Orain bai. PNV ez da alderdi abertzalea. Hamaika aldiz esana dago. Baina beste hamaikatan errepikatu beharko dugula dirudi. PNV partidu españolietako bat da. Espainiaz arduratzen direnetako bat da. «De aquí», baina hangoa erabat.

Eta politikaz bizi diren, eta politikagintzaz bizi nahi duten profesionalentz osatua. Erresta galanta.

Abertzale jendeak ezin sinets, ordea. Eta hemen sortzen dira herri honen ezinak.

Nola pasa beste maila batera? Nola gairi lokamuts hau? Egoera zentzugabe hau garaitu behar baita. Garai da-teke, gainera, egunero frogatatekeenez.

Alde batetik, ELA-LAB el-karketak erakutsi du bide abertzalearen barrera aurrrera egitea posible dela. Partidu españolen hipotekarik gabe.

Eta bestetik, jadanik instituzio autonomikoen aldetik geldoturik egon arren, euskararen aldeko herri-mogimendua miresgarria dago hor, gure Aberriaren ardatzen kokatua.

Bihotz-altzagarría, benetan, Joan Mari Beloki lanikideak Nafarroari buruz ezagutarazi berri dituen datuak. Joan den urtean, eta Iruñean bertan, %30ez hazi da D-ereduaren

eskabidea. Eskualde eralduduan, berriz, %12tik %41era pasa da seme-alabak euskaraz eskolatzera bidali dituzten gurasoen kopurua. Oro har, bestalde, %17tik %27ra igo da D-ereduaren hazkundera azkenean 9 urteotan. Horra hor herri-olatu.

Orain ausardia falta da, eta gure herrian sinestea.

Orain, ene ustez, Auto-Determinazioa helburu bakartzat hartuko lukeen herri-ekimen zabal bat sortzeko eta antolatze-ko garaia da. Ez «sigla-sopa» bat, ez. Nazkatuta alboan gelditu diren abertzale guztiak biltzeko aukera emango lukeen gauza berri bat sortu behar da poliki, pertsona berrien eskuetan jarritz.

«Il faut tourner la page», esaten da frantsesez. Agortuak dira jadanik bai post-frankismoa, bai estatutismoa.

Erakunde armaturaren menia luze bat ere behar lizateke, noski; eta abiapuntu esperantzagarri gisa, Mahai Nazionalaren askatzea. Aski liratake urrats horiek geldikeria elkor honetatik indartsu iterteko, eta euskal mogimendua osoa bozkariotan arrapizteko.

Gauza bakar bat falta horretarako eta ondorioz sortuko lizatekeen egoera berriari aurre egiteko: ausardia. Ausardia, bai. Jadanik inora eramango ez gaituen egoera usteldu honetatik irteteko. Inora... Espainiara ez bada, jakina.

Alderdi-errien gainetik, hitz batez, Aberrigintzaren aldeko Fronte Abertzalea sortzeko adorea behar dugu.

semaforo gorria



Xabier MURIZA

Euskararen memoria

Oraindik ez dut Torrealdairen «El libro negro del euskara» irakurri, baina bai maiatz honen hamazazpian Igandeginek egin zion elkarrizketa. Liburuaren edukia inguruan, beste pasarte ikaragarri askoren artean diu: «Amnesia planifikatua egon da eta dago eta amnesia horren ondorioak ari gara jasaten. (...) Gure aurreko belaunaldia belaunaldi etsia da neurri batean. Askok sufritu du eta inork ez du horretatik sufritzerik nahi, eta hori da hain zuzen transmisioa eteteo biderik onena. Ez die bere haurrei bere sufrimendua transmititu nahi. (...) Eta gero datozkigu inte-

lektualtxo hauek esanez euskaldunok askatasun osoarekin utzi diogula euskaraz hitz egiteari. Ondorioek beren kausak dituzte. Azter ditzagun, beraz, kausak».

Euskal poeta handi bati oraintsu entzuna kontatzena noa. Izenik ez dut emango, inoren sentipenik ez mintzeko. Barka biezat behar-bada bere nortasunari baka-rrik dagokion berria kentzea, baina niri egin zidan zirrara zabaldu gura izatea ez ahal da hobea izango. Gure oraingo poetari eta orduko estudianteari izen konbentzional bat emateko, Kasiano otu zait, Bizkaiko eguen zuri kopletako «San Kasiano eskola maisu entzunenaren» omenez. Kasiano,

beste asko lez, gerroste hurbilean komentu batera joan zen, non euskararen itzalik ere ez zen barkatzen. Kasiano komentutik oporretan lehenezgoz etxeratu zenerako, urteak igaro ziren. Haren buruan gaztelaniak agintzen zuten eta euskarazko hainbat klabe galduak edo nahastuak zeuzkan. Etxean, herrira meztatara edo beste zereginen batera jaistetik bueltan, amak itaundu-ko zion: «Kasiano! Zer barri da herrian? Nor ikusi dozu?». Kasiano erantzun zion: «Ba, Don Alfonso ikusitset, sakrista-ri, gero Feliziana lehengusinari ikusitset eta izeko Brigidari be bai».

Eta hala. Kasiano nebarreba askoren arteko zaharrena zen eta konturatzaren hasi zen, berak berba egitean, besteak elkarri ukondokoa hasten zirela. Behin haserretu zen eta, mahaia joez, hots egin zuen: «Ondo! Gehiago ez dot hemen erret esango, nik berba egiten dotanean, barre baino ez dotue egiten-da!». Behin amak Kasiano ez beste guztietatik agintzen die: «Gira! Urten zuek kanpora eta ibili hortik». Gero mutil burumakurrari: «Kasiano! Txokolate ingoguz?». Kasiano ez zuen ezer erantzun, baina txokolate kontua gustatu zitzaion. Amak txokolatea egin zuten eta honen eta ogi xerra erreen usainera, Kasiano burua jaso zuen. Amak katilukada txokolatea mahaian ipini zionean, Kasiano gorgoilak ahorraino

igon nahi zuen. Ha gauza gozoa!

Katilu erdi bat edandakoan, amak dinotso: «Kasiano! Ez dozu esan behar Don Alfonso ikusitset», lehengusinari «ikusitset», izeko «Brigidari ikusitset». Ikusi dot esan behar dozu, dot, dot, dot». Kasiano entzun-entzun egin zuen, isil-isilik, bere txokolateari ekinaz. Gerotxoago amak berriro dinotso: «Kasiano! Gu honezkeroko zahartzen hasita gagoz erderaz ikasteko eta zeuk ikasi beharko dozu euskeraz». Kondaira «hunki-garriak erremate harrigarria dauka azken esaldian. Hamabi urtegar erdararen usainik barik etxetik joan zen mituko! Torrealdairen liburuak jasotzen duenaren ondoriozko kondaira hauetara beste liburu bat proposatuko nuke: «Euskararen liburu sufriztailea».